

## Euskal Herria: hobetzen jarraitu

Xabier Etxaniz

Azken urteotan gero eta kezka handiagoa dago euskal literaturan irakurleen kopuruagatik, eskolaren ondorengo urteetan galtzen diren irakurleengatik edo irakurle berriak harrapatzeagatik.

Azken urte honetan euskal haur eta gazte literaturaren panorama ez da gehiegi aldatu aurrekoetakoekin parekatuz gero; hala ere, baikor egotera animatzen gaituzten aldaketak izanda ere geldiune batean gabiltzala ematen du. Eta hori ez bakarrik argitalpenetan (eta hauen tirada) baita sorkuntza mailan ere. Ez da belaunaldi aldaketarik ikusten idazleen artean; ilustratzaileen kasuan, aldiz, egoera bi-ziagoa da, izen berriak, estilo berriak eta bizitasun handiagoa nabari baita.

Aurkezpen etsigarri samar honen ondoan, baina, adierazi behar dugu azken urte honetan zenbait lan interesgarri argitaratu direla eta gure egileetako batzuek arrakasta handia izan dutela.

### Irakurleak behar ditugu

Bi urtean behin Gremio de Editores de Euskadi-Euskadiko Editoreen Elkarteak delakoak irakurzaletasunaren eta liburu erosketen inguruko azterketa egiten dute Euskal Autonomi Erkidegoan. Fidagarritasun handiko lana da (% 95etik gorakoa) eta 14 urtetik gorako biztanleei buruzkoa da. 2008 urtean aurkeztutako txostenean oso datu interesgarriak ageri dira; esaterako, biztanleen % 27,4k dio inoiz ez duela ezer irakurtzen, % 14,6k, aldiz, ia inoiz ez dutela egiten; % 5,3k hiru hilabete behin edo irakurtzen duela eta % 9,9k hilean behin. Hots, jende gehienak edo ez du irakurtzen edo oso gut-



ELENA ODRIOZOLA, ILUNORDUAK ETA ARGILAUDENAK, ELKAR, 2007.

xi irakurri ohi du. Izan ere inoiz irakurtzen ez dutenek eta urtean bost liburu baino gutxiago irakurtzen dutenek batuta biztanleriaren % 64,9 osatzen dute.

14-24 urte bitarteko gazteen datuei erreparatuta, aldiz, egoera baikorragoa da; hauen artean % 68,1ek egunero irakurtzen duela dio, gehien irakurtzen duen adin tartea delarik. Eta irakurtzen dutenari buruz galdetuta irakurritakoaren % 80,6 literatura dela esan dute.

Gazteen artean guztiek irakurtzen dute gazteleraz eta % 59,6k dio euskaraz ere egiten duela. Zergatik irakurri duten galdetuta, % 63k atseginagatik, nahi zutelako egin dutela dio, eta % 37k, aldiz, ikasketengatik.

Erosketa tasari buruz, berriz, % 45,2k testu liburuak ez ziren bestelako liburuak erosi zituen aurreko urtean eta % 48,6k ez

zuen erosi irakurritako azken liburuak (utzi egin zioten % 20,2ri, oparitu % 15,1i, liburutegitik hartu zuen % 6,4k, eta abar).


Editoreen Elkarteak eginiko azterketa honetan bada 10-13 urte bitarteko haurrei buruzko atal bat eta bertan, beste kontu batzuen artean, aipatzen da hauek urtero batz besta 10,7 liburu irakurtzen dituztela nahiz eta erdiak onartu urtean ez duela lau liburu baino gehiago irakurtzen. Azken hauen parean, ordeaz, haurren % 27,8k dio 13 liburu edo gehiago irakurtzen dituela urtero.

10-13 urteko haur hauek normalean gazteleraz irakurtzen dute (% 96,3k) eta euskaraz (% 61,8k, nesken kasuan euskarazko irakurketa % 67,6ra igotzen da eta mutilenetan, aldiz, % 55,5era jaisten). Derrigorrez, behartuta irakurtzen dituzten li-

buruak guztien % 26a dira adin tartean.

Egia da Editoreen Elkarteak eginiko txosten honen datuek baikorrak izatera animatzen gaituztela, batik bat duela bi urteko txostenarekin parekatuz gero, oraingoak datu hobek baitira. Baina jaiotze tasaren jaitzierak, eskoletan testu liburuak uzteko politika berriak eta bizirik dauden haur eta gazte literatura liburuaren kopuru gero eta handiagoak krisi sentsazioa sortarazi dute, edo argitalpen murrizketa bat bai behintzat.

Sentsazio hau bi ekintzetan gutxienez islatu da; alde batetik argitaraldien aldetik gero eta indar handiagoz esaten ari da irakurleak berreskuratu behar ditugula edo irakurle berriak erakarri. Iñaki Aldekoak, Erein argitaletxeak, Durangoko azokan honako komentario hau egin



zuen: «Durango oso ongi dago, baina irakurleak behar ditugu»; esaldi horrek kritiko, argitaraldi eta ikertzaile askoren ustea laburbiltzen du.

Gaur egun euskal literaturaren sistema inoiz baino hobeto dago; instituzioak, kritika, argitaletxeen produkzioa, egileak —idazle, itzultzaile eta ilustratzaileak—... kalitateko produktua lortzen ari dira, baina bada sistemaren alde bat huts egiten ari dena: irakurleena. Horixe da, hain zuzen, euskal literatura sistemaren alderik ahulena, indartzen saiatu behar duguna.

Beste aldetik, arestiko sentsazioa liburuen tirada gero eta murriztagoan ere islatzen da. Joan Mari Torrealdik urtero-urtero egin ohi du euskal liburugintzaren inguruko azterketa, eta azken urtean azterketa horien ondorioz *30 urte liburugintzan* (Jakin) liburua plazaratu du. Liburu guztiz beharrezkoa euskal liburugintzaren egoera eta historia ezagutu nahi duenarentzat eta etorkizunaz gogoeta egin nahi duenarentzat ere. Haur eta Gazte Literaturari buruzko datuei erreparatuta ikus dezakegu 70eko hamarkadan liburuen batzaz beste tirada 3.900 izan ohi zela, orain, berriz, 1.900ekoa da nobedadeen kasuetan eta 2000tik 1000ra (baita 500era ere) berrargitalpenetan. Hots, errentagarritasunaren mugan; hortik beherako tiradak ez baitira


errentagarriak, eta beraz, ezingo ziren egin.

Irakurle berriak bilatu behar izateak eta tiraden murrizpenak eragina dute argitaletxeetan eta hauek produzitzen duten lanean; izan ere gero eta kalitate handiagoa behar baita eta, horrekin batera, eskaintza osatzeko produktu berriak bilatzen hasi dira.

### Hutsuneak betetzen

Hainbat urte pasatu dira euskaraz sorturiko albumik argitaratu gabe, orain, berriz, 2007ko hondarretan Etxepari sariari eta Pamiela eta Faktoría K de Libros argitaletxeen elkarlanari esker *Gerlari handia* (Pamiela) plazaratu da. Laura Sagastumek eginitako kritikan, album honi buruz zera zioen, komedia edo drama moduan irakur zitekeela zenbait irakurketa maila baitzituen eta euskal HGLn «hutsuneak betetzen» laguntzen zuela.

Etxepare diru-laguntza euskaraz sorturiko albumak bultzatzeko eratu zen eta Pello Añorgak idatzi eta Jokin Mitxelenak ilustraturiko lehen argitalpen honen ondoren bigarren deialdiko irabazleak Iraia Okina ilustratzailea eta Joxan Ormazabal idazle eza-guna izan dira. 2008 urte amaiera aldera plazaratuko da album berria bildumari jarraipena emanetz eta bi argitaletxeek elkarrekin lan eginik euskal haur lite-



YOLANDA ALZOLA, ZER IZANGO NAIZ HANDITAN, IBAIZABAL, 2007.

raturako hutsune garrantzitsuenetariko bat betetzen lagun dezaten.

Sorkuntza lan hasi berri horren ondoan itzulpenak izan dira albumen euskal merkatua osatu dutenak. Horrela Jean-Philippe Arrou-Vignod, Odile Weulersse eta Rébecca Dautremer, Jeanette Randerath eta Imke Sönnichsen edo Koos Meinderts bezalako idazle eta ilustratzaileen lanak plazaratu dira Ttartalo, Ibaizabal edo Alberdania argitaletxeetan haur txikientzako eskaintza ugariuz.

Horiei guztiei gehitu behar zaie argitaletxe berri baten sorrera, Ikasmina, SM taldearen baitakoa. Etxe honek lehendik zuen Baporea indartzeaz gain haur txikientzako liburu interesgarri eta bitxia kaleratu du: *Munstroen ipuinak* (Ikasmina), irakurtzeko, ulertzeko eta jolas egiteko liburua.



### Historia txiki bat

Etxepare diru-laguntzarekin batera urtean zehar izan dira hemen aipatzeko moduko zenbait sari euskal HGLn. Alde bateatik dugu Miren Agur Meabek idatzitako *Urtebete itsasargian* (Elkar) lana. Gerra zibilean kokaturiko nobela ederra dugu Meaberen hau, eta idazleak berak zioenaren arabera «Historiaz hitz egiteko historia txiki bat be-

har nuen». Eta hain zuzen hama-hiru urteko mutiko baten historia txikia da liburuan kontatzen zaiguna, urtebetean zehar, 1936tik 1937ra, nola aldatzen den bere bizitza eta bere ingurua ere.

Historia ez baina istorio txikiez osaturik dago azken Lizardi saria. *Anekdotak* (Pamiela) Ruben Ruizek idatzitako liburu ederrean minimalismoa nabari da, narrazio sintetikoak, euskal haur literaturan hainbeste arrakasta lortu duen joera. Zortzi urteko neskato bat, Ane, dugu liburuko hogeita hamar istorioen narratzailea, bera izango da protagonista gehienetan eta umore kutsua darie zenbait istoriori. Lizardi saria eskuratu zuen liburu honek testuagatik baina horri, kasu honetan, gehitu behar diogu Eider Eibarren lan aparta ilustrazio iradokitzaile eta ederrez euskal haur eta gazte literaturako liburu guztiz interesgarria bilakatuz *Anekdotak* hau.

Aipatzekoa da ere Aitor Aranaren *Hilezkorrak* (Ikasmina), Baporea saria eskuratu zuen nobela hau zientzia fikziozkoa dugu eta XXV. mendean hilezkor izateaz nekaturik dagoen gizarteaz mintzo zaigu. Zientzialari batzuk hiltzeko genearen bila arituko dira ikaslea harrapatzen duen lan honetan. Bitxia da gure artean hain ugaria ez den genero honek nolako arrakasta duen Baporea sarian, izan ere egile ho-



keta zehatza egingo baina saiatuko gara arlo garrantzitsuenak aipatzen. Horrela aipatu behar da Ibaizabal argitaletxeak kaleraturiko sail berri bat: «Oker». Estetika berri batekin, azalean nahiz erabilitako letra tipoan, sail honek lau liburu berri eskaini dizkigu, hauen artean nabarmentzekoak dira Yolanda Arrietak idatzi eta Aitziber Alonsok ilustraturiko *Oinutsik jauregian* ipuina, herri ipuinen kutsua duen kontakizuna; eta *Zer izango naiz handitan?* Yolanda Alzolak, gure artean telebista aurkezle moduan ere ezaguna denak, idatzi eta oso era berezian ilustraturiko liburua.

Beste alde batetik Aizkorri argitaletxek aldatu egin du bere bildumen diseinua eta zenbait lan interesgarri argitaratu. Hauen artean aipa daitezke *Gurasoek estu*, Manu Lopezek idatzi eta Agurtzane Villatek ilustratua, *Jenio gaiztoa*, Pello Añorga eta Jokin Mitxelenaren artean egin edo Jonasen azken liburua, *Adio, Jonas*, Igerabidek idatzi eta Mikel Valverde ilustraturikoa. Irakur maila altuago dutenentzat, berriz, *Bizi, Bizitxo!* (Imanol Azkuek idatzia eta Eider Eibarren ilustrazioekin) eta *Zazpi pertsonaia istorio bila* (Yolanda Arrietak idatzi eta Aitziber Alonsok ilustraturiko lana) aipa daitezke narratzaile ugarien aldetik duten aberastasunagatik.

Patxi Zubizarretak Pantaleon elurrezko panpina bitxiaren bigarren liburua eskaini digu Jokin Mitxelenaren ilustrazioez lagunduta. Oraingo honetan Amazonia aldera abiatuko da panpina bere lagunekin batera. *Pantaleon badoa* (Pamiela), abenturazko

nek berak duela urte batzuk eskuratu baitzuen saria (*Azken gurasoak* lanarekin) eta Manu Lopezek ere gauza bera (*Gogoalege*), biak ere zientzia fikziozko lanak izanik. *Hilezkorrak* lan honekin hasiera eman diote Ikasmina argitaletxeok bere ibilbideari euskaraz lehendik SM etxeak egiten zituen lanak indartuz eta proiektu berriei ekinez.

Azkenik, Gasteizko udaletxeak duela urte batzuk eratu zuen saria bat euskaraturiko haur eta gazte literaturako liburu onenei emateko. Azken urte honetan honako hauek izan dira itzulpenagatik saria jaso duten obrak eta itzultzaileak: *Monsieur Ibrahim et les fleurs du Coran* (Ibrahim jauna eta koranaren lo-

reak) Patxi Zubizarretak euskaraturua gazte literatura arloan eta *Was ist das für ein Lärm?* (*Zer da zalaparta hau?*, Lola Erkiziarren eta Inazio Mugikaren artean itzulita.

Garai honetan banaturiko sari guztien irabazleak nahiko ezagunak dira gure letretan eta ez da egon idazle berriren ekarpenik, alde horretatik, gure literaturara. Are gehiago, oso gutxi dira euskal idazle berriak eta susmoa dutelaunaldi berririk ez ote dagoen idazleen artean, bai ordea ilustratzaileenean. Azken hauetako batzuk berriak eta oso interesgarriak dira, hor daude, esaterako arestian aipaturiko Iraia Okina edo Eider Eibar, Aitziber Alonso... eta horiekin batera baita

gure lurraldetik kanpo gero eta arrakasta eta onarpen handiagoa lortzen ari diren Elena Odriozola edo Mikel Valverde, esaterako, edo gure artean lan aparta egiten jarraitzen duten Anton Olariaga, Jon Zabaleta, Agurtzane Villate, eta abar.

#### Haur literatura

Aurten ere denetarik egon da euskal haur literaturan. Didaktis- motik oso hurbil dauden lanak, itzulpenak (aipatzekoa da arlo honetan Aitor Aranak eginiko lana Ibaizabal argitaletxeko liburu eta sail osoak euskaratzen), bilduma berriak... Ez dugu hemen urte osoko produkzioaren azter-

## VISITE NUESTRA PÁGINA WEB

- Consulte los sumarios de cada mes.
- Las ofertas de monográficos y números atrasados.
- El Índice 17 años de **CLIJ** en CD (con una *demo* de prueba).
- Las tarifas de publicidad.
- Las condiciones de suscripción.



JON ZABALETA, IZUGARRIAK, PAMIELA, 2008.



AITZIBER ALONSO, OINUTSIK JAUREGIN, IBAIZABAL, 2007.

ipuina baino gehiago da, gure gizartearen hondamena salatzen duen literatur obra ere badelako. Era beran, Zubizarretaren zenbait lan erdaratu dira azken garai honetan, eta azpimarratzekoak dira Usoa, hegan etorri zen neskatoren liburua Edelvives etxeak plazaratu izana; *Usoa, llegaste por el aire*, eta batik bat, *Guardar el secreto* (Anaya) liburuzoragarria.

Beste idazle batzuek ere ikusi izan dituzte bere lanak erdaraturik, horrela Mariasun Landak, Igerabidek, eta abarrek jarraitu dute aurreko urteetan bezala bere lanak erdaraz ere plazaratzen, eta horiekin batera beste idazle batzuek, hala nola Xabier Mendigurenek bere *Gurpil gainean nabil* (Giltza) lanarekin.

Juan Kruz Igerabidek, bestalde, Olentzeroren inguruko ipuin berri bat plazaratu du, *Olentzeroren malutak* (Elkar), sail berri bat osatzen joateko asmoarekin. Atxagak, berriz, kanpoan egonda azken urte honetan, Astakiloen bilduma berrargitaratua ikusi ahal izan du *Berria* egunkariarekin batera eginiko promozio bat zela medio. Hizkera aldetik gaurkotuta —eta aldaketa txiki batzuk sartuta— eta, batez ere, Jokin Mitxelenaren irudi berriz osaturik aurkeztu zaigun bilduma honek balio izan du asteasuarraren lan horiek berreskuratzeke.

Haurrei zuzenduriko beste lan batzuk ere plazaratu izan dira azken urte honetan, hor ditugu, esaterako Aitor Arana (*Lagun berezi bat*, Ibaizabal), J. Osoro (*Jara Bartzelonan*, Zubia), Arrate Egaña (*Txita more txikia*, Erein), J. Arratibel (*Izugarririk*, Pamiela), A. Urkiza (*Ondarroako piraten abentura berriak*, Ibaizabal), A. Kazabon, I. Zubeldia, Txiliku, J. M. Iturralde, P. Aristi, J. Ormazabal eta beste idazle batzuen ekarpena. Horien guztien ondoan aipatzekoak dira Katixa Agirrerren *Paularen seigarren atzamarra* (Elkar) ipuina, errealismo fantastikoaren ildotik; edo Leire Bilbaoren *Komunean galtzen naiz* (Elkar), poetikotasun handia duen ipuina eta idazle honen bigarren lana haurrentzat. Bitxia eta interesgarria da *Tarzanik gabeko oihan batean* (Erein) lana ere; Mikel Agirregomezkortak idatzi eta Gaston Majarenasek ilustratu duen ipuin honetako protagonistak, gainera, Elmer koloretako elefantea ekartzen digu gogora.

Narratibaz aparte bestelako generoen ekarpena nahiko murrizta izan da azken hilabeteotan. Aipatzekoak dira Ruben Ruizen *Sekretuak belarrira* (Aizkorri) poema liburua, Elena Odriozolak ederki ilustratua, eta Oz-eko aztiaren inguruko antzerki adaptaketa bat: *Oz-eko Aztia* (Erein), Jasone Turumbayk egina. Hauxe

izan da argitaratu den antzerki lan bakarra, aurreko urteetako goranzko joera hautsiz.

Gaszteentzako liburuetan, berriz, badira bi poema liburu: *Hiriko baratzean* (Pamiela) Jabi Santa Cruzek zenbait urtetako hutsunea hautsiz argitaratzen duen bigarren lana, eta *Ilunorduak eta argilaurdenak* (Elkar), azken urteotako poema libururik interesgarrienetarikoa bat, Joxantonio Ormazabalek idatzi eta heriotzaz, maitasunaz, bizitzaz ari dena oso modu liriko eta lortuan.

Oso lortuak eta landuak dira ere azken urteko itzulpen lan gehienak, eta horrela Gabriela Keselman, Toti Martínez de Lezea, Ana Maria Machado, Ane Fine, Cornelia Funke, Dennis Whelehan, Jordi Sierra i Fabra eta beste batzuen lanak euskaraz ikusteko aukera izan dugu. Bai eta zenbait idazlan klasiko, hala nola Xosé Neira Vilas idazle galiziarren *Txorimalo kutuna* (Elkar) edo *Altxor uhartea* (Elkar), Maria Garikanok eginiko itzulpena hainbat urte pasa ondoren edizio zainduan berreskuratzen den lan aparta.

Itzulpen lan horien ondoan izan dira euskaratu diren sail osoak, hala nola Ibaizabal argitaletxeak plazaraturiko Munstroa eta Igela Rose Impey eta Russell Aytoren artean eginikoa, Serafin arkumeren ipuinak Tai-Marc Le Thanhek idatzia eta Rébecca

Dautremer-ek ilustratua, Erregalitz taldea Patricia Schröder-ena edo Arte ikertzaileak Bjorn Sortlandek idatzi eta Trond Bredsenek ilustraturikoa. Horiekin batera dugu, baita ere, Tarttalo etxeak argitaraturiko Betiko klasikoak, idazlan klasikoaren haurrentzako adaptazioak plazaratzen dituen bilduma.


## Gazte literatura

Haur literaturan bezala gazte literaturan ere argitalpen ugari egon dira azken hilabete hauetan. Hauetako asko itzulpenak izan dira (P. Süskind, R. Alcántara, G. Lienas, P. Maestro, E. Schmitt, J. Madrid edo M. Mörpurgoren lanak euskaratuta ikusteko aukera izan dugu) eta sorkuntza lanen artean aipa daiteke Juan Kruz Igerabideren *Bagdadeko aurpegiak* (Erein), gaur egungo Irak eta antzinako Perziaren historiak eta gerrak nahasten dituen nobela hunkigarri eta landua. Bi historia, bi estilo, bi narratzaile (bata lehen pertsona kontatua, bestea hirugarren orjakilea), gertakari eta gogoeta ugariren konbinaketa... tradizioa eta modernitatea batzen dituen nobela eskaini digu Igerabidek.

Aipatzeko moduko beste lan bat Karlos Linazasororen *Etzi* (Elkar) ipuina dugu. Narrazio guztian zehar mantentzen da gi-



ANTON OLARIAGA, ETZI, ELKAR, 2007.



ro, tentsio bat, lehen pertsonan kontaturiko istorio honetan. Ipuina Brunoren agurrarekin hasten da, eta istorio guztia horren inguruan kokaturikoa da; irakurleak pittin-pittinka deskubrituko du Bruno, gizaki oso bereziaz izateaz gain, Down sindromeduna dela eta arriskuan aurkitzen dela.

Elkar argitaletxe honek berak plazaratu ditu *Irurac* eta *Hilpuinak* misteriozko liburuak. Lehen Jokin de Pedrok idatzi du eta bigarrena Joxemari Urteagak; lan biak, misterio eta intrigaren bidez, irakurleak harrapatzen saiatzen dira. Gauza bera gertatzen da abenturazko beste bi lan interesgarriekin: *Bidelapurrak, matxinoak eta kutun estimatua* (Ibaizabal) eta *Pellot eta Enperadorearen bahiketa* (Ibaizabal). Aurrenekoa M. A. Mintegik idatzia, 1766an eta Azpeiti inguruetan kokaturik dagoen lana dugu, lapurren istorioa dena base-rritarren iraultzarekin nahasirik ageri zaigu amaieran ekintzez beteriko narrazioan. *Pellot eta Enperadorearen bahiketa*, berriz, Iñaki Mendizabal Elordik, pirata eta kortsarioei buruzko zenbait lan idatzi ondoren, gaz-

teentzat idatzitako lehen nobela dugu. Izenburuan aipatzen den bezala Frantzian, Napoleon Elba irla preso zegoen garaian kokaturiko istorioa da hau, eta bertan misterioak eta traizioak paper garrantzitsua dute. Pellot kortsarioak Napoleon askatu behar du Elbatik, gertakariak, ordea, ez dira uste bezala jazotzen irakurleak hasieratik harrapatzen duen nobela honetan. Zalantzarik gabek haxe izan da urteko albiste on garrantzitsuenetariko bat euskal HGLn.

Beste idazle batzuek ere plazaratu dituzte gazteentzako obrak, horrela, F. Morillok *Seximenduz* (Elkar), irakaspenez beteriko asmo ustela, eta *Iratiko sorgin basatia* (Ibaizabal), Iratiko basoan kokaturiko sorgin, beldur eta maitasunez beterik abenturazko nobela, argitaratu ditu. Joxemari Iturralde, berriz, Done Jakue bidearen girotutako Santiago Bidean (Ibaizabal) nobela interesgarria kaleratu du; protagonistaren maitasun historien, kezken eta nekearen lekuko izango gara oso arin irakurtzen den eta gazte literaturaren eta heldu literaturaren artean dagoen obra honetan. Ana Urkiza, I. Zu-

beldia, A. Epaltza... asko izan dira bere lanak —askotan oso interesgarriak— plazaratu dituzten idazleak irakurle gaztea erakarri nahian.

### Erronkei aurre egin

Panorama honen ondorioz badirudi euskal HGL aurrera egiten ari dela, egoera onean aurkitzen dela. Ez dugu hori ukatuko baina aitortu behar dugu geldialdia nabaritzen dela gure letretan. Haur eta Gazte Literaturaren IV. Iberiar Biltzarraren haritik antolatzaileek gizarteak markatzen dizkigun «erronkei aurre egin» behar diegula zioten. Euskal HGLk ere baditu bere erronkak hauei aurre egiteko.

Egia da gure idazleetako batzuk gero eta ezagunagoak direla eta beren lanak itzuliak izan ohi direla beste hizkuntza batzuetara; lorpen handia izan da era berean Mariasun Landa izatea Andersen sarirako hautagaia, edo euskal ilustratzaileek gero eta harrera hobea lortzea.

Albumak, euskaraz sorturikoak, argitaratzen hasi gara berriro eta Nafarroako udalen

mankomunitateak Etxepare diru-laguntza eratuz eginiko ekarpena oso garrantzitsua izan da; baita Pamiela eta Faktoría K de Libros etxeen arteko elkarlana ere.

Aurrerapauso batzuk izan dira literatura kritikan ere, 2007 urte amaieran bi liburu kaleratu ziren (*Literatura eta ideologia*, Utriusque Vasconiae eta *Bela Kabelatik Ternuara*. Atxagaren haur eta gazte literatura, Pamiela), biak X. Etxanizek idatziak. Lehenengoak liburuen bidez transmititzen diren ideia eta baloreen inguruko azterketa da; bigarrena, berriz, Bernardo Atxagaren HGLren eboluzioari buruzko ikerketa. Bertan ikus daiteke nola garatu zen, bere ezaugarriak edo helduen literatura eta haur eta gazte literatura nola erlazionatu diren asteasuarren lanetan, besteak beste.

Galtzagorri elkarteak arestian aipaturiko IV. Iberiar Biltzarra antolatu zuten uztailaren hasieran Donostian. Parte hartzaile kopuru handia, tartean IBBYren lehendakaria, eta ekarpen interesgarri osaturiko biltzarra izan zen.

Baina lorpen hauen ondoan badira kezkatzeko moduko datuak. Antzerkia eta komikigintza ia erabat bazterturik daude, Erein etxeak antzerki lanak argitaratzeko apustuak ez du jarraitzen izan. Antzeko zerbait esan daiteke euskal HGLk komunikabide nagusietan izan duen harreaz; ez dago belaunaldi berririk gure idazleen artean eta merkaturiko datuak, artikuluen hasieran aipatu bezala, kezkarriak dira. Are gehiago indarrean jarri nahi den testu liburuak uzteko politika martxan jarriz gero; izan ere euskal argitaletxe handien kasuan oso egoera larrira eramán baititzake politika berri horrek.

Artikulu hasieran komentatzen genuen irakurketa maila igotzeko politika berriak behar ditugu, hezkuntza eta kultura arloan eginiko politika ausartak, baina, batez ere, lanean jarraitu beharko dugu euskarazko haur eta gazte literatura hobetzen, bere eskaintza, ugaritasuna eta kalitatea hobetzen. ■